

ZAKILIXUT

© Olariagak



Agur, Zuloa

Hamahiru urte eta gero, Gasteizko liburu denda mitikoak ateak itxi zituen atzo



JOSEBA OLALDE

Goian, Juan Ibarrondo dendaria, Zuloa liburu dendako atarian. Eskuineko irudian, bezeroak Zuloa dendako azken erosketak egiten.



TRISTURA bai, baina aurrera jarraitzeko gogoia galdu gabe. Horixe da Zuloa liburu dendako jabeek sentitzen dutena. Duela hamahiru urte Imanol Pradellsek, Juan Ibarrondok eta Josu Gurtubaik ilusio handiaren martxan jarritako liburu eta diskoen dendaren azken eguna izan zen atzokoa.

Denda ixteko erabakia iaztik hartua zuen hirukoteak; izan ere, ezinezkoa zitzaien denda handiekin lehiatzea. «Denda handiak prezioetan hain dira lehiakorrak, ezen askotan merkeago izan baitzaigu diskoak beraiei zuzenean erostea gure ohiko banatzaileei baino», azaltzen du Juan dendariak. Horrek zuzen-zuzenean eragin zuen Zuloa dendak gero eta salmenta gutxiago

izatea, eta ondorioz, negozioari ezin eustea.

Gauzak horrela, jabeek ez dute beste irtenbiderik ikusi hamahiru urteko esperientziari amaiera ematea baino. Gasteiztarren artean dende itxi egingo zutela zabaldu zenean, jendeak «tristuraz» hartu zuela onartzen du Juanek. «Bai Gasteizko kulturarentzat, bai diskoen eta liburuaren munduarentzat, galera handia dela diote askok, batik bat bezero fidelenek». Dendari gasteiztarrek Zuloaren lehen pausak gogoan ditu. Hasiera-hasieratik oso argi zuten jende gaztearentzat liburu denda bat egin nahi zutela. Baina ez hori bakarrik: leku berean saldu nahi zituzten liburuak eta diskoak, «eta hori zerbait berria zen

Gasteizen». Era berean, kulturarekin zerikusia zuten jardunaldi, aurkezpen, hitzaldi, eztabaida eta abarrentzako lekua izatea ere erdietsi zuten; «hiriko kultur arloan erreferentzia bilakatu zen Zuloa». Gerorago beste denda bat ireki zuten, Zuloa Irudia, hau komikiaren munduan berezitu, arlo horretan hutsune nabaria sumatzen baitzuten Gasteizen. Eta, azkenean, denda hori da Zuloak hirian utzi duen arrasto bakarra. Izan ere, atzokoa zen Pintoreria kaleko denda handian sartzeko azken eguna.

Azken bi hilabeteotan, itxiera iragarri zuten momentutik hain justu, eskaintza berezia egon da liburu eta disko guztietan. Zuloa, azken egunak %50ean. Hori zioten kanpoalde-

an jarritako karteak. Eta Juanek azaltzen digunez, «oso denbora gutxian sekula baino gehiago saldu dugu; harrituta nago jendeak izan duen erantzunarekin».

Eta etorkizuna begira, zer? Behin baino gehiagotan entzun duten galdara. «Bakoitzak bere bideari jarraituko dio; beti sumatuko dugu honen falta, baina ezin dugu atzera begira egon, orain gure bizitzaren aro berri bat hasiko baita», esan digu Juanek. Bada, zorte handia izan dezazula aurrerantzean eta ea utzitako zuloa laster betetzen den, behar da eta.

Edurne Begiristain

GASTEIZ